

**Ziklo berri baten hasiera**

**EROSKI -K ZERGA AURREKO 40 MILIOI EUROKO  
IRABAZIAK IZAN DITU**

- Banaketa jardueraren emaitza operatiboa %20 hobetu da, eta 129 milioi eurotara iritsi da
- Bankuarekin dituen konpromiso guztiak bete ditu, eta 500 milioi eurotara igo du zor amortizatuaren guztizkoa
- 2016an 87 milioi euro baino gehiago inbertitu dira, funtsean dendak birmoldatzeko eta Zurekin eredu komertziala hedatzeko
- Kreditu fiskalaren desaktibazioak, abendutik indarrean den fiskalitate berrira doitu dagoenak, 23 milioi euroko zerga emaitza negatiboa ekarri du
- Fakturazioa egonkor dago, 6.051 milioi eurotan, Zurekin eredu komertzialaren hazkunde konstanteagatik, izan ere dagoeneko belaunaldi berriko 512 dendatara iritsi da

Elorrio, 2017ko maiatzaren 26a.- [EROSKI](#) Taldeak 2017ko urtarrilaren 31n itxi zituen kontuak, eta zerga aurreko 40 milioi euroko irabaziak izan ditu. Bere banaketa jardueraren emaitza operatiboa %20 hobetu da, eta 129 milioi eurotara iritsi da; hala, 0,41 puntutan hobetu du bere salmenta ratioa, %2,44ra iritsita; Zurekin eredu komertzialari esker da hori, eta hornikuntza katearen efizientzia hobetu duelako, produktibitatea %7 handituta, hau da, eurotan 21 milioi. Fakturazioa egonkor dago, 6.051 milioi eurotan

Iaz, 2016an, EROSKI finantza entitateekin zituen konpromiso guztiak bete zituen, eta zorra 221 milioi eurotan amortizatu zuen. Guztira, 500 milioi euro amortizatu du zorra, kontuan hartuta partaidetzako sozietateek amortizatutakoa eta aurtengo lehen hiruhilekoko.

Ebitdari dagokionez, 244 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino 4 milioi gehiago; horrek erakusten du EROSKI Taldearen jarduera komertziala sendoa dela. Kreditu fiskalen desaktibazioak, abendutik indarrean den fiskalitate berrira doitu dagoenak, 23 milioi euroko zerga emaitza negatiboa ekarri du, eta, hala, %63 hobetu da aurreko urtetik.

EROSKI Kluba indartu egin da, aurrezpen plataforma eta Bezero Bazkidearekiko lotura gisa; kontsumitzaileen aurrezpen transferentzia 260 milioi eurokoa izan da, eskaintzen eta sustapen gero eta pertsonalagoen bitartez gauzatua.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

2016ko inbertsioetan erabilitakoa, berriz, 87 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta gehiena supermerkatu eta hipermerkatu sarea birmoldatzeko; hain zuzen, dagoeneko 512 denda ditu belaunaldi berrira eta Zurekin eredu komertzialera aldatuak; eredu hori oso lehiakorra da, eta nabarmendu egiten da bezeroari arreta pertsonalagoa ematen zaiolako, freskoetan espezializatuagoa dagoelako eta tokian tokiko janaria merkaturatzen duelako; horrela, eskaintza komertzial berezi hori eginez, elikadura osasungarriaren eta kontsumo iraunkorraren alde egiten du.

<b>EROSKI TALDEAREN USTIAPEN KONTU KONSOLIDATUETATIK</b>		
ateratako datuak		
Milioi eurotan		
	2017/01/31	eb
SALMENTA GARBIA (BEZ GABE)	5.280,4	+ %0,02
EMAITZA OPERATIBOA *	128,6	+ 20%
<b>ZERGA AURREKO EMAITZA</b>	<b>39,9</b>	<b>+ 97%</b>
ZERGA ONDORENGO EMAITZA	-22,8	+ 63%

\* Merkataritza Funtzen eta Ezohiko Aktiboen narriaduraren aurretik eta Ibilgetuen salmenten emaitzaren aurretik.

EROSKI S. Kooperatiboak, berriz, Taldeko enpresa nagusiak, 1,5 milioi euroko onura positiboa izan du, eta hori ere aldaketa zantzua da aurreko urteekin alderatuta.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**  
**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)